

Tolosako Udala herriko hainbat gune eraberritzen ari da

Paper kalea berritzeko lanak amaituta, San Frantzisko pasealekuaren eta Pedro Tolosa kalearen arteko bidegurutzearekin ari dira; haur parkeetako karpak garbitu dituzte // 3

Bihar inauguratuko dute Orendaingo kultur etxe berria

Duela hiru urteko haizeteak eragindako kalteen ondorioz konpondu behar izan dute; frontoi zaharreko eremua berri eta aisialdirako egokitu nahi du udalak // 4

«Naturaren zikloa ikusten da, eta esaldi bakoitza hazi bat da»

JUAN KRUIZ IGERABIDE
IDAZLEA

‘Basamortua’ izeneko album ilustratuaren testuak osatu ditu adunarrak; gaur aurkeztuko dute lana // 5

30. Haur Mendi Ibilaldia Amasa-Villabonan egingo dute

Aizkardi mendi elkarteak antolatuta igandean izango da; Errebote plazatik aterata hiru ibilbide izango dituzte aukeran gatzetxoek // 6



SANTIMOLINA

«Asobal Liga oso urrun ikusi izan dut beti, bertan jokatzeari izugarria da»

HAITZ GOROSTIDI ESKUBALOI JOKALARIA

Guadalajara taldearekin eskubaloiko lehen mailan jokatu du tolosarrak datorren denboraldian, aurtengo goia lortu eta gero; Tolosa Eskubaloian hasi zen jokatzeko, eta oso pozik dago lorpenarekin, «oraindik sinetsi ezinda» // 7



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 LEAKTIBAI Coasteering irteera

Lagun batentzako tokia

Irteera eguna:
2022ko uztailearen 9a
Kostako haitzetan
zohar ibilaldia
(Gutxienezko adina: 12 urte)

www.leaktibai.eus
688 82 67 97 • LEKEITIO

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



2 BBK Karpin Abentura FAUNAREN BABES ZENTRUA

Bi lagunentzako

KARRANTZA
626 622 245
infokarpin@gmail.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**



3 EKAINERRI museoa: Kobazuloak + esperientziak

Bi lagunentzako sarrera bikoitza

ZESTOA
943 86 88 11
info@ekainberri.com
www.ekainberri.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**



Bertsoaz gozatzeko aukera, Anoetan eta Iruran

Harituz eguna ospatuko dute larunbatean; goizean Iruran hasiko dira, eta Anoetan bazkaldu ostean, kalejira egingo dute bertan

Erredakzioa

Bi urteko etenaren ondoren, Harituz Tolosaldeko Bertsozale Taldeak bere eguna antolatu du larunbaterako. Iruran eta Anoetan izango da Harituz eguna, Tolosaldeko bertsozaleak elkartzea izango da helburua, eta egun osoko egitaraua antolatu du elkartek, bertsoa erdigunean izango delarik.

2019an ospatu zen Harituz egunean Ibarra eta Tolosan bertsozale ugari elkartu zela kantuan eta festan gogoratu dute, eta aurtengo helburua tabernaz-taberna egingo den bertso-poteoan zein Kuku elkartearen egingo den bazkalosteko saioan jende horri kanturako aukera eta testuinguru atsegina eskaintzea da» esan dute.



Tolosaldeko bertsozaleak elkartzea da egunaren helburua. I. URKIZU

Hain zuzen, 11:30ean hasiko dira bertso poteoarekin Irurako tabernetan, eta ondoren, Anoetako Kuku elkartearen bazkalduko dute. Bazkalostean bertso saio izango da elkartearen bertan, eta iluntzean, berriz, kalejira egingo dute Anoetako tabernetan zehar, Laskotxarangako hainbat kideren laguntzarekin. Bazkari-

rako txartelen erreserba 629 834 710 telefono zenbakira WhatsApp mezua idatziz egin behar delako esan dute.

Harituz elkartetik esan dutenez, egun guztian zehar ez da bertso zein musikarik faltako eta eskualdeko bertsozale guztiak gonbidatu dituzte Harituz egunean parte hartzera.

Kirol astea Larraulen, gaurtik igandera

Gaur eta bihar ikastaroa eta hitzaldia izango dira, eta asteburuan mendi ibilaldia eta orientazio proba izango dituzte

Erredakzioa Larraul

Gaur hasi eta igandera bitarte, kirol astea izango dute Larraulen. Askotariko ekitaldiak izango dituzte, gazte nahiz helduei zuzendutakoak.

Gaur, esaterako, lehen soros-

pen ikastaroa izango dute, eta bihar, Iker Karreraren liburua- ren aurkezpen hitzaldia izango da. Etzi futbol eta frontenis txapelketak izango dituzte, eta larunbatean eta igandean mendira joateko ekintzak prestatu dituzte.

EGITARAUA

Maiatzak 25, asteazkena. Lehen sorospenen inguruko ikastaroa, 16:30etik 20:30era.

Maiatzak 26, osteguna. Bidea ipar Iker karreraren liburua- ren aurkezpena eta hitzaldia, 19:00etan.

Maiatzak 27, ostirala. Areto futbol eta frontenis txapelketa haur eta helduei zuzendua, 17:30ean hasita.

Ondoren, parte hartzaileentzat merienda.

Maiatzak 28, larunbata. Mendi buelta interpretatua herriko natur baliabideak ezagutzeko Jon Zulaikaren eskutik, 11:30ean.

Maiatzak 29, igandea. Familia zein lagun taldeentzat orientazio proba, 11:30ean.



Kirol astearen barruan kronoigoera ere egin izan dute. J. MIRANDA



TXAKUR KAKAK JASOTZEKO KARTELAK

Ikaztegi- etako eskolako haurrek txakur kakak jasotzeko mezua zabaltzen duten kartelak kokatu dituzte herriko hainbat lekutan. Txakurren kakak bertan uzten dituzten txakur jabeak kontzientziazatzea nahi du Ikaztegi- etako Udalak. Hala, haurren kexari erantzunez, eskolan gaia landu dute, eta kartelak egin dituzte ikasleek. Bederatzi kartela egin dituzte, eta guztiek mezu bera dute, txakur kakak jaso egin behar direla, alegia. ENERITZ MAIZ

Ardo zuriaren azoka egingo dute larunbatean

Erredakzioa Tolosa

Gure Txokoa elkartearen eskutik Ardo zuriaren azokaz gozatu ahal da larunbatean Tolosako Trianguloa plazan. 11:30ean zabalduko dute azoka eta 14:00ak arte egongo da zabalik. Ardo mota desberdinak dastatzeko aukera izango da, estatu osoko 13

upategik parte hartuko baitute, eta horrekin batera, pintxoak ere izango dira.

Elkartetik azaldu dutenez, azokaren helburua hainbat izendapenetako ardo zuriak ezagutaraztea da. Gure Txokoa elkartearekin batera, 19-90, Xare, Karela eta Fronton tabernekin ere parte hartuko dute azokan.

Tolosako hainbat gune eraberritzen ari da udala

Haurren Hiria programako eskari bati erantzunez, sarea jarri dute Lizardi plazako jolasgunean; Paper kaleko lanak amaitu ondoren, biribilgune berri bat eraikiko du

Josu Artutxa Dorronsoro

Tolosako Udala zenbait hirigintza lan egiten ari da azken asteetan, herria eraberritzeko eta irisgarriagoa izateko helburuarekin. Hilabete hasieran, Santa Lutzia auzoko aparkaleku berria ireki zuten, 28 plaza dituen. Beranduago, *Haurren Hiria* programaren baitan, herriko haurrek egindako eskaerari erantzun zion udalak. Pandemiaren aurretik, programa horretan, herria nola bizi duten landu zuten *Tolosa*, guztion herria lelopean. Besteak beste, jolasguneen inguruko azterketa egin zuten, eta tartean, Lizardi plazako jolas eremuaren inguruan sarea jartzeari eskatu zioten udalari, erabiltzen dituzten baloiak ibaira erori daitezkeen saihesteko.

Kaleak eraberritzen ere ari da udala. Laskoain kalean eta Gernikako Arbolan egindako lanen ondoren, Paper kalea eraberritzeko lanak gauzatu dituzte. Bost hilabeteko iraupena izan dute lanek, 559.108,7 euroko (BEZa barne) aurrekontuarekin. Udalak zehaztutako mugikortasun planean jasotako irizpideak jarraituz egin dituzte lanak. «Irisgarritasuna, segurtasuna eta kalitatea hobetzea lortu dugu, eta orain

oinezkoentzako espazio handiagoa dago; erakargarriagoa da herritarrentzat», esan du Olatz Peon alkateak.

Behin Paper kaleko lanak amaituta, San Frantzisko pasealekuaren eta Pedro Tolosa kalearen arteko bidegurutzea biribilgune bihurtzeko lanei ekin die udalak. Saneamendu lanak amaitu berri dituzte, eta beraz, hasiera eman diote bigarren faseari. Orain, «behin betiko soluzio bat» diseinatu du udalak. Urbanizazio lanak amaitzen direnean eraikiko dute biribilgunea; horrez gain, inguruko kaleak berriaz asfaltatuko dituzte. «Eremuko bizi kalitatea nabarmen hobetuko da. Gainera, zaratak gutxitu eta emisioak murriztuko dira», azaldu du udalak.

PARKEETAKO KARPAK, GARBI

Aldi berean, herriko guneak txukun eta atsegin mantentzeko, azken egunetan, haur parkeetako karpak garbitu dituzte. Pasa den astean, Larramendi auzoko parkeko karpa garbitu zuten; aste honetan, berriz, Amaiur parkeko karpa garbitu dute. Alondegiko karpa aurrerago garbitzea aurreikusten du udalak, oraindik Covid-19aren aurkako probak egiteko erabiltzen baita.



Lizardi plazako jolasgunea, Paper kalea eta San Frantzisko ibiltokiaren eta Pedro Tolosa kalearen arteko biribilguneko lanak. TOLOSAKU UDALA

Zumarditxikiaz erabakiak hartzea eskatu dio EH Bilduk udal gobernuari

Herritarren gozamenerako «berreskuratu beharreko espazioa» dela eta, aparkalekuen arazoa konpontzeko eskatu dio

J.A.D.

Tolosako EH Bilduk legealdi hasieran adierazi zuen Zumarditxikia «herritarren gozamenerako» berreskuratu beharreko espazio «zoragarria» dela. Aldi berean, oposizioko alderdiari «ezinbestekoa» iruditzen zaio Alde Zahararren izaera berezia kontuan hartzea eta zaintzea: «herritar guztiok lasai ibiltzeko eta sozializatze gunea da, baita herriko merkataritza sektorearen motor nagusia ere».

Gaur egun, Zumarditxikian aparkatzen dituzte autoak Alde Zaharreko bizilagun askok. «Gune hau berreskuratu nahi dugun bezala, Alde Zaharreko bizilagunen aparkatzeko beharrei erantzun behar diegu. Zumardi Txikiko proiektua gartzearekin batera, Alde Zaharreko biztanleei aparkatzeko irtenbidea eman behar zaie», exijitu dute.

Asteburuan, *Haragi Fest* jaialdia ospatu da Zumarditxikian. «Zein espazio atsegina den frogatu ahal izan dugu», adierazi dute. Hori dela eta, «zuhurtziaz» jokatzeko eskatu diote udal gobernuari: «Enpresa bat kontratatu dute aparkalekuen arazoa azter dezan, baina bitartean, duela bederatzi hilabete adierazi genuen bezala, Lapurdi plazako garajeak erabiltzea proposatzen dugu, batez ere, Zumarditxikian ekitaldiak ospatzen diren egunetan», esan dute.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria.n jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu

Frontoi zaharreko eremua berritu eta aisialdirako egokitu nahi dute

Orendaingo Udalak 384.000 euroko aurrekontua du, eta legegintzaldi honetan frontoi zaharraren eremua eraberritu nahi dute; bihar, kultur etxe berritua inauguratuko dute

Eneritz Maiz Etxarri

Haizetea izan zela azaroan hiru urte beteko badira ere, oraindik, kultur etxean eragin zituen kalteak lanak ematen ari da Orendaingo Udalean. Izan ere, Migel Angel Arsuaga Orendaingo alkateak esan duenez, aseguru etxetik ezin izan dute jaso konpontze lanek izan duten kostu guztia; «80.000 euro falta zaizkigu».

Aldundiarekin jarri ziren harremanetan, landa garapenerako laguntzetatik lagunduko zietela esan zieten, eta guztia bukatzea espero dute. «Lehen zegoen bezala ez uzteagatik, teilatua lehen zegoena baino ziurrago jarri nahi izan dugu beste segurtasun neurri batzuk jarrita», azaldu du alkateak, eta ondorioz, aurrekontua igo egin da. «Kontua da aseguru etxeak lehen zegoena ordainduko duela esan digula».

Bada, obra guztia bukatuta dute, eta barrukoa ere guztiz bete nahi dute «bukatutzat» emateko. Nahiz eta, ziur ez dauden gauza guztiak iritsiko ote diren edo ez, jada inauguraziorako eguna jarria dute, eta bihar irekiko dituzte, berriz ere, kultur etxeko ateak. «Altzari guztiak iristen ez badira ere jendeak ikus dezala, eta ireki egingo dugu», kontatu du Arsuagak. Argazki batzuk jarriko dituzte nola geratu zen gogoratzeke, eta horrekin batera artisau garagardo festa bat egingo dute herriko gazteenkin batera antolatuta. 19:00etatik aurrera, garagardo festari hasiera emango diote eta Bassagain Original Dancehall Soundek jarriko du musika. Sarrera eta basoa bi euro ordaindu beharko da, eta jateko pintxoak, sandwichak eta patatak jarriko dituzte.

Gaia «amorragarria» izan dela ekarri du gogora alkateak, «buruhauste eta zalantza handiak» sortu baitizkie. «Ez da soilik teilatua jartzea izan, barruan gauza asko geratu ziren puskatuta». Eta festa horrekin, haizetea ahaztu eta aurrera begira jartzeko gogoz dira Orendaingo udal ordezkariak.

Haizetea albo batera utzita,



Orendaingo herrigunearen amaieran dagoen frontoi zaharreko eremua ez dago egoera onean, eta itxita dago gaur egun. E.MAIZ

aurtengorako 384.000 euroko aurrekontua du Orendaingo herriak. Ur sarean sartu gabe bost baserri dituzte, eta epe laburrean obra horiekin hastera aurreikusiten dute. Diru laguntza batzuk lortu dituzte; alde batetik, aldundiak kostuaren %48 lagunduko die, ur kontsortzioak %34 eta gainerakoa udalaren kontu izan beharko luke. «Udalarentzat diru asko dela iruditzen zaigu», dio. Jabeekin negoziatu nahi dute bakoitzak kostuaren zati bat jar ote dezakeen. Hala eta guztiz ere, jada lanak egingo dituen enpresa hartua dute.

Berritu dutena udaletxe ondoan haur parkearen lurra izan da, «egoera txarrean» baitzegoen.

ERREPIDEAK

Neguko euriteek Orendainen ere zalaparta sortu zuten, eta besteak beste, herrirako bideak itxita geratu ziren luizi handi bat tarteko. Luiziak albo batera utzita, urteroko ahalegina da herriko baserri bideak mantentzearena, eta gogora ekarri du baserri bat dutela biderik gabe: «Bidea egiteko eskatzen digute, eta aurren

bigarren urtez eskatu dugu laguntza. Iaz ez ziguten eman laguntzarik ez dutelako bertan aktibitatearik, eta aurren ere zailtzak ditut emango diguten», argitu du. Aipatu neguko euriteen eraginez, esaterako, Zelaieta baserrira doan bidean luizi bat dute konpontzeko: «Pentsatzen dugu horretarako laguntza jaso dugula artzaintzatik bizi direlako». Errepide nagusian ere, Abaltzisketara bidean, beste luizi bat dute, baina hori aldundiaren ardura dela zehaztu du.

Iaztik hasita jada prest dutena gas zerbitzua da. Azken baimearen zain badaude ere, egun gutxi barru, ostatuak, udaletxeak eta elkarteak gasa izango dute. Elkarteak eta ostatuak butanoa erabiltzen dute, eta udalaretxea gasolioarekin berotzen dute: «Obra guztia eginda dago, konektatzea falta da soilik».

FRONTOI ZAHARRA

Frontoi zaharrarekin bueltaka jarraitzen dute Orendaingo Udalean. Bi edo hiru saiakera eginak dituzte diru laguntzak lortzeko. Orain artean ez dute lortu, baina

«Altzari guztiak iristen ez badira jendeak kultur etxea ikustea nahi dugu, eta bihar irekiko dugu»

**MIGEL ANGEL ARSUAGA
ORENDAINGO ALKATEA**

ez dute etsi, eta aurren, berriz ere, proiektua txikiagotuta aurkeztuko dute diru laguntzetara: «Tokia nahiko utzita dago, eta ez zaigu gustatzen dagoen moduan», dio alkateak. Naturan txertatu nahi dute frontoi zaharra.


Hasiera batean egin zuten proiektua moldatu dute; «nahiko proiektu polita egin dugula uste dut», nabarmendu du Arsuagak. «Frontoia orain dagoena mantenduko genuke txukunduta jarritz, eta hortik kanpora dagoen zelaian mahaiak, txirrista, zuhaitzak...». Aisialdirako gune edo atsedeneleku bat egingo luke. Herriguneari eta azken etxebizitzaren jarraipenari amaiera eman nahi diote lan horiek egin da.

Eskolapioetako frontoia da zu-

tik mantentzen dutena, eta horrekin batera, udalak baso lurrak ere bereganatu zituen. «Aurren basoan landaketak egin ditugu, eta orain beste baso batzuk eskuratzeko negoziaketan ari gara». Gehien bat haritzak landatu dituzte, Orendaingo kokalekurako hori gomendatu dietelako: «Lehen dena pinua zegoen». «Orendaingo Udalak ez du behin ere izan terreno ezta basorik ere, eta orain komenigarri ikusten dugu izatea», dio Arsuagak.

Basoa eskuratzear gain, ibilbide bat ere prestatu nahi dute herraren bueltan. «Herrigunean paseo bat egiteko asmotan gabilta, eta baso zati hori primeran etorriko litzaiguke», gaineratu du.

Legealdia asko baldintzatuta doala azpimarratu du, batez ere, ekonomikoki. Nolabait, legealdi hasieran zituzten asmoak zapuztu zaizkie, eta ez dute ziurtasunik izan aurrera eraman nahi zituzten proiektuak gauzatzeko. Pandemia albo batera utzita ere, haizeteak hankaz gora jarri zuen udala eta azken luiziek ere eragina izan dute Orendainen.



J.M.

ELENA ARRESEREN MARGOLANAK AMASAKO HIKAN

Elena Arreseren margolanekin osatu dute *Basamortua* izeneko album ilustratua, eta besteak beste, liburu horretako margolanak oinarri hartuta, erakusketa zabalduko du gaur Arresek, Hika txakolindegian bertan.

Arratsaldean, 19:00etan egingo dute liburuaren aurkezpen ekitaldia Amasako txakolindegian, eta bide batez, ekitaldiak erakusketa inaurguratzeko balioko du. Margolanen erakusketa ikusgai izango da, uz-tailaren 31ra bitartean.

tetik aurrera edonork irakurri dezake.

Elena Arresek egin ditu ilustrazioak. Zer moduzkoa izan da bion arteko elkarlana?

Oso ona. Zoragarriak dira Elenaren margoak. Ia-ia koadroen antzeko ilustrazioak dira eta ipuina beste modu horretara ere gozatu dezake irakurleak. Elena eta biak oso ongi moldatu gara elkarrekin. Niri gustatzen zait testu bat entregatzen dudanean biderik ere ez adieraztea ilustratzaileari. Iru-ditzen zait margolariari berari ateratzen zaiona izaten dela interesgarriena. Kasu honetan, Elenak interpretazioari buruz pare bat detaile galdetu zizkidan, baina hortik aurrera askatasun osoarekin egin du lan. Gero pandemia garaian aurrez aurre egoteko aukera handiegirik ez dugu izan, baina orain sortu zaigu elkartzeko okasioa aurkezpenaren harira. **Xibarit argitaletxeak kaleratu du liburua.**

Oso album goxoa da. Argitaletxe horrek gutxi argitaratzen du baina ateratzen dituen liburuak oso politak dira. Eskerrak ematea besterik ez zait geratzen, horrela-ko gauza ederra ateratzeagatik. **Zein beste proiektutan zabil-tza orain?**

Beti dabilkit errota martxan. Orain Alberdaniarekin gauza bat lantzen ari naiz eta baita Denon Artean argitaletxearekin ere. Herensugeari buruzko ipuintxo bat sortzen ari naiz eta marrazkiak Elena Odriozolak egingo ditu. Naturari buruzko testu batzuk ere ari naiz prestatzen. Poliki-poliki baina beti martxan. Duela gutxi *Desertuan behatxuloo* liburua atera du Anjel Lertxundik eta hiru bat hilabetez jardun naiz berearekin testuak irakurri eta iradokizunak egiten. Gehiegi ez zaio lagundu behar Anduri, baina lau begik bik baino gehiago ikusten dute beti.

«Ipuinak badu naturarekin zerikusia duen irakurketa ere»

JUAN KRUIZ IGERABIDE IDAZLEA

'Basamortua' izeneko album ilustratuaren testuak osatu ditu idazle adunarrak; gaur Amasako Hika txakolindegian aurkeztuko dute Xibarit argitaletxeak atera duen liburua

Jon Miranda

Harri azpian basamortuaren erdian dauden bi haziren istorioa ondu du Juan Kruz Igerabidek (Aduna, 1956) *Basamortua* album ilustratuan.

Nola jaso duzu gonbidapena proiektu honetan parte hartzeko?

Gonbidapena Joseba Urretabizkaia egin zidan, Xibariteko arduradunak. Elena Arresek marrazkiak egin eta nik testua idaztea proposatu zidan. Duela pare bat urte izango zen gutxi gora behera. Ipuin bat entregatu nion, gustatu zitzaion eta lanari ekin genion Elenak eta biok. Pandemia tarteko, denbora bat pasa da, baina iritsi da jendaurrean aurkezteko eguna.

Zer da ipuin honetan kontatzen duzuna?

Haurrentzako ipuin bat da baina helduentzako ere izan dezake irakurketa bat. Bi hazi dira protagonista, harri batean azpian daude,

haizeak ekarrita, eta milaka urte pasatzen dituzte basamortuan. Halako batean hegazti batek hazi horietako bat hartu eta eraman egiten du. Naturaren zikloa ikusten da ipuinean, hazitik landarrera, landaretik hazira. Denbora oso luzean ematen da prozesua, eta badu umoretik ere. Gertatu izan da milaka urtetan geldu egon eta fenomeno batengatik berpiztu diren haziak. Testuak badu azpian irakurketa ekologikoa edo behintzat naturarekin zerikusia duena.

Zenbateko luzera du?

Oso laburra da. Irakurterraza da. Esaldi bakoitza hazi bat da eta apurka-apurka garatzen da, haziak hazten diren bezala.

Zein adinetako umeentzat dago pentsatuta ipuina?

Oso ume txikientzako ere baliagarria izan daitekeela uste dut. Berez, oso irakurketa sinplea du, eta ume batek gozatu dezake haziaren irakurketa horrekin, inolako arazorik gabe. Lau edo bost ur-

Asteasun egingo dute larunbatean Senidetze Eguna

Aiztondo bailarak El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearekin duen senidetzearen 29. urtemuga ospatuko dute

Erredakzioa Asteasu

Aiztondo bailarak El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearekin duen senidetzea ospatzeko ekitaldiak egingo dira datozen egunotan Zizurkilen eta Asteasun. Bihar, 15:00etatik aurrera, Zizurkilgo Pedro Mari Otaño ikastetxeko umeek gainerako ikastetxetako ikasleei ipuin solidarioak kontatuko dizkiete Plazida Otaño liburutegian eta Atxulondo kultur etxean. Larunbatean, berriz, Asteasun, Senidetze Egunaren barruan, ekitaldia egingo dute 12:00etan udaletxean, eta ondoren, bazkarian bilduko dira herritarrak Sarasola sagardotegian.

El Salvadorren 1981eko gerra zibilaren harira, herrialdearen iparraldeko milaka herritarrek euren etxeak utzi behar izan zituzten eta Hondurasen babes hartu, Colomnecaguako kanpamentuetan. Han jaso zuten Segundo Montes jesuitaren bisita eta honek kudeatu zuen salvadortarren aberriratzeari 1989an. Urte hartako azaroan, Universidad Centroamericana beste zazpi lagunekin Montes erail eta bi egunetara hasi zuten itzulera El Salvadorreko herritarrek. Morazan departamentuko Meanguera eta Jocoaitique udalerrien lurretan eraiki zuten bizitokia, eta komunitateari Segundo Montes izena eman zioten. Zizurkilgo alkate zela 1993an bisitatu zuen lehenengo aldiz tokia Mikel Arrastoak: «Erabateko pre-

karietatean bizi ziren. Urteotan udalek Euskal Fondoari egindako ekarpenekin proiektu asko eraman dira aurrera eta tokia bizigarriagoa da orain. Dena den asko falta da oraindik egiteko».

Azkenaldian ur saneamendua bermatzeko egin diren lanak nabarmendu ditu Arrastoak, gaur egun, Euskal Fondoko lehendakariorde denak, baina horrekin batera, «maila mikroan» gauzatzen diren proiektuetan jarri du azpimarra. «Aiztondo herri bakoitzean aurrera eramaten diren ekimen solidarioei esker garrantzitsuak diren beste hainbat gauza egiten dira». Genero arloan edota gazteekin egiten den lanke-ta aipatu ditu, Gazte Enpatia programaren barruan, EHUrekin lankidetzan sustatzen direnak, besteak beste. «Hango gazteek aisialdian egiteko ekimenak sustatzen dira, *mara* delakoetan eror ez daitezen».

Egunotan Euskal Herrian dira El Salvadorretik etorritako hainbat gazte. Horietako batek, Nory Hernandezek, Segundo Montes komunitatean bizi den kazetari-tza ikasleak, ekainaren 1era arte luzatuko du bere egonaldia eta larunbatean Asteasun izango da.

Aurten, bi urteko etenaren ostean, hitzordua berreskuratu duten arren, Arrastoak aurreratu du begiz jota dutela 2023ko Senidetze Eguna. 30. urteurrena gogora ekartzeko ekitaldi sorta antolatuta nahiko lukete Aiztondo bailarako udal arduradunek.

zozketak

Atarikideentzat dortsal bat dugu

12. Emakumezkoen Triatloia
300m igerian / 8km bizikletan / 2km korrika

Ekainak 25, larunbata
15:00etan · Donostian

Antolatzailea:
Atletico San Sebastian.

Zozketetan parte hartzeko **osteguneko** 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**



Altzon larunbatean jokaturako pala modalitateko partiden irudia. R.C.G.

ATARIA PILOTA TXAPELKETA, ASTEBURUKO PARTIDAK

Eskuz, benjamin B

Anoeta,

5. jardunaldia

Larunbata, 11:00

Bravo-Landa
Goñi-Letamendia
Tolosa-San Sebastian-Goya
Langarika-Artola
Zubeldia II-Gibelalde
Gorostegi-Zaldua
Rosa-Lizaso
Garcia-Larrarte

Ibarra,

5. jardunaldia

Larunbata, 15:30

Otaegi-Acosta
Estevez-Erauskin
Azpillkueta-Renobales
Barriola-Aburuza
Zubeldia I-Aierbe
Bengoetxea-Maiza
Murgi-Lasa
Zubillaga-Ardibide-Belloso

Tolosa (Beotibar)

5. jardunaldia

Larunbata, 15:30

Artola-Gorostidi
Arruti-Gereño

Robles-Gonzalez

Ruiz-Rezola

Goikoetxea-Beloki

Gerriko-Alejo

Eskuz, infantilak

Amezket,

4. jardunaldia

Bihar, 18:30

Perurena-Caminos
Karrera-Gorostidi-Goñi
A. Larrarte-U. Mayo
Altuna-Artola
M. Iraola-A. Otaegi
Arandia-Olano

Palaz, benjaminak eta alebinak

Altzo, 4. jardunaldia

Larunbata, 16:00

Elola-Cestau
Uzkudun-Goikoetxea
Irazusta-Bergara
Goitia-Elola

Palaz, infantilak

Altzo,

3. jardunaldia

Larunbata, 16:00

Goikoetxea-Lasa
Agirre-Juantorena

30. Haur Mendi Ibilaldia Amasa-Villabonan izango da

Erredakzioa Amasa-Villabona

Euskal Mendizale Federazioak egiten duen 30. Haur Ibilaldia igandean, hilaren 29an, izango da, eta Amasa-Villabonak hartuko du, Aizkardi mendi elkarteak antolatuta.

09:00etan egingo zaie harrera parte hartzaileei Errebote plazan trikiti doinuekin eta haur bakoitzari kontrol txartel bat emango zaio. 14 urte arteko umeek parte har dezakete euren guraso edo tutoreak lagunduta, eta aurrez, *Emf.eus* helbidean eman behar dute izena. Egunean bertan, 08:30ean mahaiak jarriko ditu antolakuntzak izena eman nahi dutenentzat. Doakoa izango da parte hartzea.

Haur ibilaldia zirkularra izan-

go da eta Errebote plazatik 09:30ean abiatuko dira haurrak Aizkardi mendi elkarteak prestatu dituen hiru ibilbideak egiteko. Plastikozko zintekin markatuta egongo dira bideak eta parte hartzaile bakoitzak bere baldintzeta ondoen egokitzen dena egin ahal izango da. Ibilbide luzeak 13,5 kilometro ditu, motzak 9,5 kilometro eta motzenak 7,5 kilometro.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez ibilbide luzeko bidea itxiko duen kontrol bat jarriko dute Mendabietan 11:00etan eta ibilbide motzako bidea itxeko 13:00etan beste kontrol bat jarriko dute Komizar parkean. Parte hartzaile guztiak Errebote plazan 14:00etan bilduko dira. Plazan bertan 12:30etik aurrera tri-

kiti doinuak egongo dira eta parte hartzaile bakoitzarentzat pin-txo bana banatuko da. 14:30ean emango diote amaiera 30. Haur Mendi Ibilaldiari Amasa-Villabonan.

Aizkardi mendi elkarteak garraibide publikoa erabiltzea gomendatu du eta gogorarazi du Errebote plazak ez duela autoentzatzat sarbiderik. Aldi berean, parte hartzaileei ibilbidean zehar jarriko den seinaleztapena errespetatzeko eskatu die eta bakoitzak sortzen dituen hondakinak bere motxilan eramateko. Informazio gehiago nahi duenak Euskal Mendizale Federazioaren webgunean izango du edo bestela antolatzaileekin jarri daiteke harremanetan *ibilaldia@aizkardi.com* helbidean.

Hegats Igeriketa Txapelketa Usabalen, larunbatean

Erredakzioa Tolosa

Maiatzaren azken larunbatean egin ohi dute Tolosan Roberto Jauregiaren oroimenezko hegats igeriketa txapelketa, eta datorren larunbatean, hilaren 28an, egokitu da aurtengoa. Hemeretzigarrena izango da aurturten.

Igarondo Urpekoak taldeak antolatzen duen txapelketa Usabal kiroldegiko igerilekuan jokatuko da, eta 10:00etan hasiko da goizeko txanda, eta 16:00etan arratsaldekoa. Taldetik esan du-

tenez, bost erkidegotik (Katalunia, Gaztela, Aragoi, Nafarroa eta Euskadi) etorritako, 12 -15 urte bitarteko 180 gazte inguruk hartuko dute parte. Igarondo Urpekoak taldeko bost igerilarik parte hartuko dute, eta beraientzat esperientzia polita izatea espero dute.

50 metrotik hasi eta 400 metro arteko probak egin behar dute igerilariak; «ikustera gerturatzaren direnzentzat oso formatu ikusgarria izango dela uste dugu», azaldu dute.

Txapelketaren helburua Roberto Jauregi omentzea da, «ahal den era onenean, igeri egiten». Izan ere, taldetik gogoratu dutenez, «Jauregi hegats igeriketa Tolosara ekarri zuen entrenatzailea izan zen eta edozein kirolari laguntzeko prest izaten zela beti ezagutzen dute tolosar askok».

Bestalde, Igarondo Urpekoak taldeak Tolosako Udala nahiz Hegats Igeriketa Txapelketa aurrera ateratzen lagundu duten babesleak eskertu nahi ditu.

Otsabio Eguna, larunbatean, Goltzurko zelaian


LIZARTZA // Otsabio Kirol Elkarteak Otsabio Eguna antolatu du larunbat honetarako, hilak 28, Goltzurko zelaian. Goizean oinez eta bizikletaz egiteko ibilbideak antolatu dituzte Goltzurko zelaira joateko. 12:30ean, haur eta gazteentzako jolasak egingo dituzte. 13:30ean, talde guztien iritsiera izango da, eta 14:00etan bazkaria. 16:00etan mus txapelketa, eta 17:00etan toka txapelketa egingo dute.

Billabonak irabaziz hasi du mailari eusteko lauko finala

AMASA-VILLABONA // Futboleko gizonetako gorengo mailan jarraitu nahi du Billabonak eta iraupen faseko lauko finalean lehen pausoa eman du horretarako. Joan-etorriko kanporaketa jokatzen ari da Gure Txokoa taldearen aurka, eta asteburuan, etxetik kanpo, 0-2ko markagailuarekin irabazi zuen joaneko neurketa. Itzulerako partida igandean jokatuko du, Arratzainen, 11:00etan hasita.

Ez du lortu mailaz igotzea Elorri-Aldapa saskibaloit taldeak

ALEGIA // Gipuzkoako hirugarren mailan dago Elorri-Aldapa gizonetako saskibaloit taldea. Azken partidara arte mailaz igotzeko lehian izan da, lehen hiru rek baitzuten aukera hori. Baina igoera faseko hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeke lehian galdu egin dute alegiarrek, asteburuan, 69 eta 63, Mondragon Unibertsitatea B taldearen aurka, mailaz igotzeko helburua bertan behera geratuz.



Egutegiak, emaitzak, sailkapenak, argazki galeriak... txapelketaren informazio guztia Ataria.eus webgunean.



VI. Ataria

pilota txapelketa

Imanol Garcia Landa Tolosa

Urruti ikusi izan du betidanik Haitz Gorostidik (Tolosa, 2001) Asobal Ligan, eskubaloiairen lehen mailan, jokatzeari. Baina amets hori lortu du Guadalajara taldearekin, igoera lortuz. Gainera, taldearekin bi urterako hitzarmena sinatu du. Asobal Ligan jokatzeko duen Tolosaldeko lehen jokalaria izango da.

Asobal Ligan igo zara Guadalajararekin. Zer suposatzen du zuretzat?

Aste bat baino gehiago pasa da, baina oraindik asimilatzen jarraitzen dut. Ez da berez helburu bat izan niretzako Asobal ligan jokatzeari, oso urruti ikusi dudalako beti. Bai nahi izan dudala eskubaloian ahal den urrutien iristea edo ahal den esperientzia gehienak bizitzea, niretzako beti izan delako oso garrantzitsua, baina orain dela urtebete bigarren B mailan nengoen jokatzeko, eta inork esan izan balit urtebete beranduago Asobal Ligan egongo nintzela, erotuta dagoela esango nioke. Beraz, oraindik sinistu gabe.

Eta taldearentzat?

Asobal Ligatik jaitsi ondoren, hamar baja izan zituzten. Bi edo hiru urtera begirako proiektu bat egin zuten, jokalariek gazteekin, baina oso ondo ulertu dugu elkar, bai jokatzeko eta baita kanpoko kanpo ere, eta igoera lortzea tokatu da. Hiriarentzako eta klubarentzako oso garrantzitsua izan da, baina ez zen espero, eta ezusteko oso ona izan da.

Urtebetean lortu du, beraz, berriro itzultzea Asobal ligara.

Mailaz jaitsi eta hurrengo denboraldian igotzea oso zaila da. Hamar jokalariek berri izan dituzte taldeak, baina, esan bezala, ondo ulertu dugu elkar.

Orain dela bi jardunaldi lortu zenuten igoera. Eta asteburuan, 34-26 irabazi zenioten Fertiberia Puerto Saguntori.

Igoera ospatu genuen gure jendearen aurrean. Denboraldi guztian zehar oso garrantzitsua izan dira guretzat. Ospatu nahi genuen, baina partida irabazi ere bai. Igoera lortu du, baina liga irabazteko asmoa ere badugu. Fertiberiakoak oraindik aukerak zituzten igoera lortzeko, edo hirugarren geratzeko eta igoera fase moduko bat jokatzeko. Guk betiko seriotasunarekin hartu genuen partida. Oso ondo joan zen eta zortzi golengatik irabazi genuen. Lehen zatian nahiko ahul ateratu ginen, baina bigarrenengoan defendatuz eta azkar erasotuz nahiko erraz irabazi genuen.



SANTIMOLINA / RUNONLINE TV

«Niretzako amets bat da, izugarria da lehen mailan jokatzeari»

HAITZ GOROSTIDI ESKUBALOI JOKALARIA

Orain urtebete inork Gorostidiri Asobal Ligan jokatzeko zuela esan izan balio, ez zion sinetsiko, eta gaur egun oraindik asimilatzen ari da lortutakoa; Guadalajara taldearekin lortu du igoera esubaloi jokalaritokosarrak

Azken jardunaldia falta zai-zue asteburuan.

Eivissan jokatzeko dugu, eta aukera dugu denboraldi izugarri honi bukaera polit bat emateko. Bigarren doan taldeak guri lehen postua kentzeko aukera bakarra da beraiek bere partida irabaztea eta guk geurea galtzea.

Nola iritsi zinen Guadalajarara?

Pixka bat errebotez iritsi nintzen. Tolosa Eskubaloian Bigarren B mailan, hau da, 1. Maila Nazionalan, maila ona ematen ari nintzen. Maila horretan zegoen Zaragozako talde bateko entrenatzaileak Guadalajarako bigarren entrenatzailea izan behar zuen. Guadalajara jokalaritoki bila ari zen eta entrenatzaile horrek nigan pentsatu zuen, Tolosare-

kin jokatzeko ikusi zidalako. Gazte bezala eskaini zidaten hitzarmena, bigarren taldearekin ere partidak jokatzeko asmoz. Justu nirekin hitz egin ondoren, aste-betera beste talde batekin sinatu zuen entrenatzaile horrek. Beraz, justu-justu sinatu nuen Guadalajararekin.

Beraz, aurretik ez zara egon lehen taldearen fitxarekin.

Klubak ez zuen nire berririk, nik bidalitako bideo batzuk zituen soilik. Beraz, niretzako zein taldearentzako proba bat zen. Inoiz aurretik ibili gabe nengoen Bigarren Mailan, ez nekien zer maila emango nuen, eta beraiek ere ez zekiten nik nola funtzionatuko nuen. Baina iritsi nintzen momentutik nire burua espero baino askoz hobeto ikusi nuen. Az-

ken denboraldi honetan bigarren taldearekin bi partida bakarrik jokatu ditut, eta lehenengo taldearekin partida guztietan deialdian egon naiz. Pixkana joan naiz, eta taldearekin esan zidaten hirugarren albokoa izango nintzela, eta pixkana minutuak hartzen joango nintzela. Entrenamenduetan oso ondo ikusten nuen neure burua, eta partidetan bai kostatu zaidala pixka bat konfiantza hartzea. Baina azken lau-bost partidetan hori aldatu da. Malagaren aurkako partidan, nire postuko titullarrak ezin izan zuen jokatu, eta niri eman zidaten aukera titular bezala jokatzeko. Partida guztia jokatu nuen, eta lau edo bost gol sartu nituen. Oso ondo jokatu nuen, konfiantzarekin. Hortik aurrera minutu asko jokatu ditut eta oso kontentu daude nirekin. Ni ere, oso kontentu nago; espero nuen minutuak edukitzea, baina ez izaten ari naizen minutuak eta konfiantza.

Denboraldiko zatirik garrantzitsuenetan nabarmendu zara, beraz.

Malagako aukera hori aprobetxatu nuen. Oso garrantzitsua izan zen bertan irabaztea. Ligan etxeko partidak irabaztea erraza-

goa zen, baina kanpokoak oso zaila ziren, eta Malagan irabaztea oso garrantzitsua izan zen. Gero, etxean, Alacanten aurka azken unea zuzenez irabazi genuen, partida garrantzitsua izan zen eta asko jokatu nuen. Eta igoera lortu genuen partidan beste lau gol sartu nituen, azken partida hauek oso garrantzi-

«Azken partida hauek oso garrantzitsua izan zen eta ni konfiantza horrekin sentitu naiz, aurrerapuso emanaz»

tsua izan zen eta ni konfiantza horrekin sentitu naiz, aurrerapuso emanaz.

Nola sentitu zara aldagelan?

Talde oso gaztea da eta oso ondo konpondu naiz beste jokalariekin. Bestalde, lehenengo aldia nuen etxetik kanpo eta bakarrik bizitzen, eta hasieran pixka bat kostatu zitzaidan.

Aurretik, soilik Tolosa aritu zara eskubaloian, ezta?

Bai, Tolosa Eskubaloian hasi nintzen hamabi urterekin, eta denboraldi hau arte ez naiz beste talde batean egon.

Datorren denboraldian Guadalajarara jarraituko duzu?

Bai, bi urterako hitzarmena egin dut, eta oso pozik nago. Asobal Ligan jokatzeari, lehen esan bezala, oso urruti ikusi izan dut, eta niretzako amets bat betetzea da.

Azken jardunaldia eta segidan oporrak?

Bi hilabete inguruko oporrak izango ditugu. Libre izango dut, baina bereziki aprobetxatu beharko dut fisikoki prest egoteko. Asobal Ligan kilo askoko eta fisikoki handia diren jokalariek daude. Salto handiagoa omen da Bigarren Mailatik Asobal Ligara, 1. Maila Nazionaletik Bigarren Mailara baino. Baina hori lanarekin konpentsatzen da eta horretarako ez dago gogo faltarik.

Tolosa Eskubaloiko lagunak zer esan dizute igoera lortzerakoan?

Mezu gustiak oso positiboak izan dira, denak oso kontentu daude niregatik. Denboraldi guztian zehar joan dira nire lagunak eta nire taldekideak izan direnak partidak jarraitzen, eta hitz egiten egon naiz ia denekin. Taldean partidaz partida joan gara, lagunentzat ere horrela izan da, eta bukaera aldera ezin sinistuta zer lortu dugun ikusita.

Asobal Ligan jokatzeko duen Tolosaldeko lehenengo jokalaria izango zara.

Hori esan zidaten, eta niretzako amets bat da, izugarria da lehen mailan jokatzeari.



ASTEAZKENA, 2022KO MAIATZAK 25
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



BABESTUTAKO EDUKIA

Uztaileko egunak, ingelesean sakontzeko

Lacunza akademiak ingeleseko ikastaro trinkoak eskaintzen ditu uztailean zehar; 'Adventures' ludoteka zerbitzua ere badute gaztetxoentzat

Iristear da uda eta ganean dira udako oporrak ere. Lacunza akademian, udari begira, aukera ederrak dituzte ingelese ikasten hasi, jarraitu, azterketetarako prestatu edota ludotekan, modu dibertigarriago batean, ingelese-ra gehiago hurbiltzeko. Matrikulatzeko epea dagoeneko zabalik daukate: 943 65 30 77 zenbakira deituta, *maitane.tolosa@lacunza.es* helbidera idatzita edota Lopez Mendizabal leian daukaten bulegora joanda eman daiteke izena.

Ingelesa hobetu nahi duenak, beraz, uztailean zehar, egunero izango du saioak jasotzeko aukera, goizez beti. Astelehenetik ostiralera, bi orduko saioak egiten dituzte, maila ezberdinetan. «Ikasturtean zehar, ikasgaiaren batean larri ibili badira eta indarrak ikasgai horretan jarri badi-

tuzte, agian ingelesean errefortzua behar dute, eta uztailean libreago egonik, momentu aproposa izan daiteke», esan du Maitane Tolosak, Lacunza akademiako bezero arreta darmanak.

Ingelesean ondo doazenentzat ere aprobetxatzeko moduko aukera da. «Ikastaro trinkoa egin eta agian hurrengo urtean azterketetako talde batean sartzeko aukera izan dezakete». Edota kanpoan ikasten aritu eta datorren ikasturtean hemengo ikastetxeetan hasi behar dutenak ere Lacunzara joan ohi dira. «EAEko ikastetxeetan ingeleseko maila nahiko altua dago orokorrean, beraz, ikasturte berrian eskolara doazenerako prestatzea komeni izaten zaie».

Gutxienez bi asterako matrikulazioa egin behar da, baina



Tolosan, Lopez Mendizabal 1 zenbakian eta Rondilla kaleko 2 zenbakian ditu ikastegiak Lacunza akademiak. I. S. A.

hizkuntzan gehiago hobetu nahi duenak, lau astez, hilabete osoz jaso ditzake klaseak. «Egunero bi orduz arituta, astean hamar ordu sartuta, asko aurreratzen dute ikasleek denbora gutxian».

AZTERKETARAKO PRESTATZEN

Azterketetara bideratutako ikastaroak ere eskaintzen dituzte Lacunzan. B2 eta C1 lortzeko azterketak, hau da, First eta Advance tituluak lortzeko saioak dira. Uztaile amaieran izaten da deialdia azterketa egiteko, eta askok, abenduko azterketarako prestatzeko ere baliatzen dute uztaileko ikastaro trinkoa.

Azterketara begirako saioak dira, besteak beste, azterketa simulazioak egiten dituzte, titulua lortu ahal izateko. Saio hauek ere, astelehenetik ostiralera, egunero, goizez, bi orduz egiten dira. «Ikasturtean zehar nahikoa lan izaten dute ikastetxeko edota unibertsitateko klaseekin, eta uda aprobetxatzen dute askok, azterketa prestatu eta titulua lortzeko».

Gainera, gaur egun, unibertsitate mailan, gradu bat amaitzerako ingeleseko titulua izatea eskatzen dute zenbait lekutan. «Batxilergoa amaitzen ari direnentzat ere aproposa da uztaile ingelesean sakontzeko, izan ere, ekainean selektibitatea izaten dute eta ez dute astirik izaten ekaineko azterketarako behar bezala prestatzeko, beraz, udan ingeleseko saioak egin eta hurrengo deialdirako prestatzen dira.

Ingeles orokorreko zein azterketetara begirako saioetarako 13 urtetik gorako edonork eman dezake izena. Eta kasu honetan ere gutxienez hamabostaldirako matrikula egin beharko da. Aurrez Lacunza akademian ibili ez diren ikasleek mailaketa test bat egin beharko dute, beraientzat egokiena den taldean kokatu ahal izateko.

JOLAS BIDEZ IKASTEN

Bost urtetik hamabi urtera bitarteko gaztetxoentzat ere badute ingeleseko eskaintza Lacunza

akademian: *Adventures*, haurrei zuzendutako ludoteka zerbitzua, hain zuzen. Ekainaren 27an hasiko da honakoa, eta kasu honetan, asteka matrikulatu daiteke. «Modu ludiko eta dibertigarri batean ingelese ikasteko aukera dute txikiak». Ziurtatu dute, ondo pasatzeaz gain, asko aurreratzen dutela denbora gutxian.

Akademiatik kanpora aktibitate ezberdinak, jolasak, irteerak egiten dituzte, beti gai jakin baten inguruan. Aurtengo udan ingurumenaren izango dute ardatz, eta astero, ingurumenarekin lotutako proiektu ezberdinak landuko dituzte.

09:30etik 13:00etara kanpoko ekintzak egiten dituzte, eta 13:00etatik 14:00etara akademian bertan klasea izaten dute. Beraz, kanpoko ekintzetan nahiz akademiako klaseetan ingurumenaren inguruan ariko dira, hiztegia landuz.

Hala nahi duenak, gainera, 08:00etatik aurrera haur txoko zerbitzua ere izango du.

